



BARREN
TOKIKOM



Zuzendariaren agurra

Baguaz! bidaiak-esperientziak

Nakupenda Tanzania

Nora Hadi

"Bizitzako etapa berri bakoitzak zure bertsio berri eta ezberdina eskatuko dizu. Esaldi hori buruan nuela zapaldu nuen Tanzania, handik alde egindakoan kanpotik berdin, baina barrutik ezberdin itzuliko nintzelakoan. Gainera, ba al da alternatiba hoberik lan boluntarioa eta turismoa uztartuz munduan barrena bidaiatzeko?"

Urriak 28, asteartea
Kultur Etxeko hitzaldi gela
19:00



Antolatzailea:



Elkarrekin:



elgoibar

EGUBERRIETAKO APAINGARRIEN TAILERRA FAMILIAN

HH4-LH3 bitarteko
ume eta familientzat

Abenduak 2,
zapatua
10:00 - 13:00

Atxutxiamaikako
lokalean

(MERKATU PLAZAKO 2. SOLAIRUAN)



Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



JESUS JIMENEZ

Ekonomilaria



Diruaren aberria

tzuetan, baina biziraupen kontua izan zen batez ere finantza erakundeentzat.

Egoitza aldaketak gertatu ziren egun horietan, intentzio politikoarekin batzuk edo sentsazionalismo hutsagatik besteak, komunikabideetan hasia zen Kataluniako banketxeen aurkako kanpaina indarra hartzen, guztiok ezagutzen dugun oinarritzko printzipio batez baliatuz. Dirua beldurtia da. Tertulietan parte hartzen duten ohiko guruen ahotan korralitoa, bankuen porrota eta aurrezkiak galtzea ziren behin eta berriro entzuten ziren leloak. Eta lelo horiei jarraika, jendeari Kataluniatik kanpo dirua salbu jartzeko gomendioa.

Historian eta munduan zehar, bestealde, badira zurrumurru baten ondorioz porrot egin duten banketxeak, zurrumurrua zabaltzearekin batera berezero eta akziodun guztiak batera izututa dirua berreskuratzeko asmoarekin leihatilara gerturatu direlako. Europako banku zentralaren likideziaren aterkiaren azpitik irteeta edo gordailuak bermatzeko funtsaren estalpetik kanpo geratzeko aukera arrisku indartsuegiak ziren honelako egoera bati bide emateko, are gehiago politikari eta komunikabideek beldurraren hauspoari eragiten bazioten. Biziraupen erabakia. Azken finean dirua beldurtia bezain aberrigabea da.

Urraren 1ean Katalunian egindako erreferendum eta independentzia aldarrikapenak dagoeneko ezagunak ditugun ondorio sozial eta politikoak utzi ditu. Ekonomiak ere ezin izan ditu zalapartak eta gorabeherak saihestu eta egoera nahasiak hainbat enpresa eta finantza erakunde beraien egoitza sozialak Kataluniatik ateratzera bultzatu zituen. Arrazoi politikoak izango ziren kasu ba-

“Biziraupen erabakia. Azken finean dirua beldurtia bezain aberrigabea da”



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euzko Udalen Erakundeak

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalua Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Soraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirre-azaldegi **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► SEBAS ETXERA

Sebas Etxanizek, Villabonako (Asturias) espetxean dagoen preso politiko elgoibartarrak, 74 urte beteko ditu azaroaren 27an. 15 urte jarraian egingo ditu espetxean preso. Lehenago ere beste hiru urte egin zituen espetxean. Espainiako legearen arabera, adin horretako presoek kalean beharko lukete, baina ez da halakorik gertatzen. Orain herritarren aktibazioak lortu behar du presoak askatzea, ziklo zaharra behingoz bukatzeko eta berri batean murgiltzeko. Testuinguru honetan, elkarretaratze handi bat nahiko genuke egin azaroaren 24an, Kalegoen plazan, 20:00etan. Denon inplikazioa da beharrezkoa, eta asko eskertuko genuke zu ere han egotea.

Elgoibarko Sare

► ESKERRIK ASKO

Lerro hauen bidez eskerrak eman nahiko genizkioke Mendaroko herriari, joan den ostiraleko odol ateratzeetan izan genuen arrakastagatik.

Erronka berri bat planteatu genuen, eta sekulakoa izan zen erantzuna. Guztira, 85 lagun hurbildu zitzaizkigun, horietatik 75ek eman ahal izan zuten odola, eta odola eman zutenetatik bederatzik lehenengoz eman zuten. Gure eskerrik beroena eman nahiko genieke, era berean, Mendaroko Landa erretegikoei, ostiraleko ekitaldirako prestatu zizkiguten mokadu goxoengatik.

Mila-mila esker! Hurrengo odol ateratze deialdirako ere animatu nahi zaituztegu. Eman odola, eman bizia!

Mendaroko Odol Emaileak

► EMAKUMEAREN MUNDUA

Gizadiaren erdia baino gehiago emakumez dago osaturik, eta beste erdia, gizonez eraturikoa, emakume baten gorputzaren bidez etorri ohi da mundura. Oraindik ez dute asmatu inolako makinarik hiru mila milioi emakumek burutzen duten lan eskerga egiteko. Hori dela eta, antzinako kultur askotan ugalkortasunarena mitifikatua izan zen. Izan ere, emakumezkoak dira bizia emateko kapaz diren bakarrak. Halarik ere, gizonezkoek jabetu zirenean ugalden prozesuan parte hartzen zutela, orduan erabaki zuten emakumearen gorputza kontrolatzea, seme-alaben jabetza ziurtatzea, eta, sarri askotan, emakumearen gorputza erabiltzea beraien nagusitasuna erakusteko. Gurean, ama izateak osasun arazoak baldin badakartza ere, herrialde txiroetan, maiz, heriotza dakar. Leku askotan emakumeen bizi-itxaropenak ez du berrogeita bost urteen muga gaintzen. Nutrizio arazo handiak dituzte, eta umea izan eta, ordu gutxitara, beraien komunitatera bueltatuko dira, plazenta eramango dute, eta etxe inguruko bazterren batean gordeko dute. Horrelako lekuetan, jaioberrien hilkortasun tasa,

gainontzeko leku aurreratuetan baino ehuneko berrogeita hamar handiagoa da, baina inori ez dio axola; ondo bizi gara horretaz jabetzeko. Gainera, oraindik, kultura askotan jaiotakoa emakumea baldin bada, baztertu, eta, behin baino gehiagotan, hil egiten dute. Gainera, horiek dira etxeko eta kanpoko lanak egiten dituztenak, eskolara joateko aukera galtzen dutenak, beraien lurraldetan programa ofizialeatik at gelditzen direnak, eta ezer gutxi irabazten dutenak. Horiek dira Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko egunaz ezer gutxi dakitenak. Horiek dira emakumearen mundua.

Juan Luis Mugertza

► OHARRA

Abenduko jai-zubia dela-eta, abenduaren 8an ez da BARREnik egongo, eta beraz, aste horretan zerbait argitaratzeko asmoa zenuenok jakin ezazue abenduaren 1eko alea edo 15ekoa izango dituzuela horretarako.

BARREN

SALENTO

BAR PIZZERIA

Pedro Migel Uruzuno. 10 - 20870 Elgoibar
salento_elgoibar@hotmail.com
Facebook/Salento de Carlo

BERRIA!

Etxez etxeko banaketa aste guztian zehar.

ASTEBURUETARAKO MENUA! 13€

BANAKETAREN ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostegunera:
20:00etatik 23:00etara

Ostiral eta larunbatak:
20:00etatik 23:30era

Igandetan:
13:00etatik 16:00etara
20:00etatik 23:00etara

GURE ESKAINTZATIK NAHI DUZUNA ESKATU ETA ETXERA ERAMANGO DIZUGU.

943 740 196

salento de carlo

Eguneko menua: astelehenetik ostiralera



▶ NARRUTSIK TALDEA

San Bartolome jaietan feminismoaren ideiak zabaltzeko asmoz sortu zuten Narrutsik taldea Elgoibarren hainbat lagunek, baina ikusita deialdi hark izan zuen erantzuna eta taldera batu zirenen ilusioa, jarduna zabaltzea erabaki zuten, jaietara mugatu beharrean. Datozen egunetarako ere hainbat ekimen antolatu dituzte, eta parte hartzera deitu dituzte herritarrak.

◆ Zer izateko asmoz jaiotzen taldea?

Herriko neska feministen elkargune izateko. Gure asmoa feminismoa lantzea da, eta ikasitakoa herriari transmititzea, batez ere herritarrak kontzientziazteko.

◆ Azaroaren 25aren harira hainbat ekintza iragarri dituzue. Azalduiguzue.

Woman in black ekimena egingo dugu, matxismoak hildako biktimak gogora ekartzeko eta jendeari arazo larri hau modu bisualean aurkezteko. Beltzez jantzi eta lurtean etzango gara, eta ondoren, klarionarekin gure gorputzen siluetak markatuko ditugu. Arratsaldean, Maalan, zapatak pilatuko ditugu indarkeria matxista jasaten duten emakume guztiak sinbolizatzen (norberak eraman beharko ditu zapatak). Bukatzeko, emakumeon sinbolo bat marraztuko dugu kandelekin, gure elkertasuna eta indarra erakusteko.

◆ Elgoibarren "aldaketarako gosea" dagoela ondorioztatu duzue San Bartolome jaietan taldea aurkeztu zenutenetik. Zertan igarri duzue? Zeren gose dira herritarrak?

Jaietan, uste genuena baino zapi gehiago saldu genituen. Batzuk gabe ere gelditu ziren. Gainera, jende askok zoriondu gintuen eta proiektu honekin bat zetozela adierazi ziguten. Zapi asko saldu bagenituen ere, jende askok ez zituen jantzi eta hor konturatu ginen feminismo berbari errezeloa diela oraindik jende askok eta elgoibartarrongarri tradizioak indar handia daukela. Horregatik, feminismoaren ideiak zabaltzea da gure asmoa, jendeak hobeto ulertzeko eta kontzientzia hartzeko.

◆ Zer harreman daukazue Elgoibarren genero kontuak lantzen dituzten gainerako eragileekin? Berdintasun Sailarekin, Emakume Kontseiluarekin...

Jaietan Udalarekin batera ibili ginen lanean. Jaietarako *Beldur barik* programan ere parte hartu genuen eta pultserak eta abar ere banatu genituen. Oraindik ez dugu denbora askorik izan harremanak sendotzeko, baina lanean jarraitzeko asmoa dugu.

◆ Inkesta bat ere zabaldu duzue? Zer egiteko asmoa duzue biltzen dituzten emaitzekin?

Elgoibarren emakumeek jasaten ditugun erasoak kuantifikatu eta salatu nahi ditugu, jendea konturatu dadin gugandik oso gertu dagoen arazoa dela hau. Gainera, salatzen animatu nahi ditugu herritarrak, garrantzitsua delako gainerakoak kontziente izatea zenbateraino sentitzen garen erasoak.

ELGOIBAR

AZAROAK 25, LARUNBATA

Elkarretaratzea: 12:00etan, Kalegoen plazan. Haizea emakume taldekoek batukada taldea osatu dute eta kalejira egingo dute aurrea. Era berean, eta hileko azken zapatua dela kontuan hartuta, Kale Kantariak ere batuko dira elkarretaratzera, eta denek batera Mikel Laboaren *Hegoak ebaki banizkio* kantua abestuko dute, tarte batez isilunea gorde ondoren. Antolatzaileak: Elgoibarko Udaleko Berdintasun eta Ongizate sailak.

Emakumeentzako autodefentsa tailerra. 10:00etatik 12:30era, Elgoibarko Olaizaga kiroldegian. 14 urtez gorakoentzako ikastaroa da. Antolatzaileak: Elgoibarko Udaleko Berdintasun eta Ongizate sailak.

'Woman in black' ekimena. Kalegoen plazan izango da, 12:30ean, emakumeentzako autodefentsa tailerra bukatu ostean. Emakumeek, beltzez jantzita, indarkeria matxistak hil dituen emakumeak gogoraraziko dituzte lurtean euren siluetak marraztuz. Narrutsik talde feministak antolatuta.

Ekimen berezia Maalan. Oinetakoak pilatuko dituzte Maalan, indarkeria jasaten duten pertsonak ordezkatzeko eta emakumeon ikur handi bat piztuko dute gertaera horien aurrean euren indarra agertzeko. 19:00etan izango da, eta parte hartzera doazenei oinetako pare bana eramateko eskatu diete.

AZAROAK 27, ASTELEHENA

Jabekuntza tailerrak. Azaroaren 27an egingo da, Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 18:30etik 20:30era. Loredi Salegik dinamizatuko du saioa eta gaztelaraz izango da. Gaia: 'Mikromatxismoa: eguneroko beste indarkeria motak'. Antolatzaileak: Elgoibarko Udaleko Berdintasun eta Ongizate sailak.

AZAROAK 29, ASTEAZKENA

Ipuin-kontalaria. 'Berdin eta desberdin mila ipuin' izenburuko ipuina kontatuko du Anduriña Zurutzak, 17:00etan, Gotzon Garate liburutegian. Antolatzailea: liburutegia.

MENDARO

AZAROAK 24, OSTIRALA

'Woman in black'. 19:00etan, Herriko Enparantzan. Gizonek hildako emakumeak gogoraraziko dituzte. Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldeak antolatuta.

“Biktima isilduak eta ahaztuak dira adineko emakumeak”

▶ **MARISA REBOLLEDO** AGORA TALDEKO KOORDINATZAILEA



‘Emakumeak, zahartzaroa eta indarkeria matxistak: ikusten ez dena ikustaraztea’ izeneko jardunaldian parte hartu zuen eguaztenean Elgoibarren Marisa Rebolledo Agora taldeko koordinatzaile eta genero politiketan adituak. Rebolledok argi laga zuen adin handiko emakumeek dutela babes gutxien genero indarkeriaren aurrean eta errealitate hori, esparru profesional askotan ere ikusezina den hori, bistaratu zuen. Elgoibarko Udaleko Berdintasun eta Ongizate sailek antolatu zuten jardunaldia, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin.

- AINARA ARGOITIA -

♦ **Zergatik da komenigarria indarkeria matxistaz ari garela argia adineko emakumeengana zuzentzea?**

Komenigarria baino gehiago adineko emakumeen diskurtsoa propio lantzea ezinbestekoa dela esango nuke, badituelako berezitasunak. Batetik, adinekoek urteetan jasan dutelako genero indarkeria eta ez dituztelako euren eskubideak ezagutzen, eta bestetik, mendekotasun ekonomikoa eta bestelako faktore batzuk ere gurutzatzen direlako. Gaur egun, zorionez, gero eta emakume gehiago ausartzen dira indarkeria matxista salatzea eta gero eta gehiagok lortzen dute aurrera egitea, baina horietatik oso gutxi dira adinekoak, 55-60 bat urtez gorakoak. Horiek oso naturalizatuta dute indarkeria matxista, besteak beste balore tradizioaletan eta genero-roletan heziak direlako eta hezkuntza horrek otzanak, isilak eta gizonaren mendekoak egin dituelako. Badira 40-50 urtean erasotzaile batekin bizi direnak ere, eta jakina, horien sufrimendua ezin da bi-hiru urtez tratatu txarrak jaso dituen emakume batenarekin alderatu. Ondorio larriak antzeman daitezke haietan. Biktima isilduak eta ahaztuak dira, ez delako haietaz hitz egiten. Genero indarkeriaz ari garela, biktima gazteak agertzen dira beti gure iruditegi kolektiboan; sekula ez adinekoak. Baliabide berezirik ere ez dago haientzat, indarkeria matxista jasan duten emakumeen artean 55 urtez gorakoak gehiengoa osatzen duten arren. Horietako gehienek alar-guntzean lortzen dute erasotzailearen gaindik askatzea!

♦ **Ahaztuak diozu. Reportaje hau ilustratzeko Interneten argazki bila**

hasi naiz, eta ez, ez da kanpaina askorik egin, ez.

Argazkiak topatzea bera ere zaila da. Adineko emakumeen kontrako indarkeria matxistari buruzko artikuluetarako ere, sarri, emakume gazteen argazkiak erabiltzen dituzte. Apenas egin den kanpaina berezirik, gainera. Oraitxe hasi gara alarma-argiak pizten.

♦ **Dena dago egiteko beraz. Zer baliabide beharko genituzke?**

Baliabide propioak behar dira: adinekoengan pentsatuta sortutako kanpainak eta haien beharrei erantzuteko erreminta propioak. Adineko emakumeen kasuan ez da nahikoa gizarte zerbitzuen ohiko esku-hartzea. Gauza asko hartu behar dira hemen aintzat. Begira, kontu bat: indarkeria matxista jasan duen adineko emakume batek bost aldiz arrisku handiagoa du osasun txarra izateko, baina anbulategietan eta osasun-etxeetan ez dira emakume hauek behar bezala artatzen ari. Osasun arazoari erreparatzen diote medikuek, eta adinekoak direnez, asko normalizat hartzen dituzte, jakin gabe horren atzean zer dagoen. Eta zaila da, egia esan, askotan emakumeek eurek ere ez dakitelako biktima direla. Hain dituzte naturalizatuta tratatu txarrak, normalizat hartzen dituztela. Tailerretan ikusi izan dugu hori. Aurreko batean honela esan zidan urtetan senarrak ekonomikoki itota izan duen emakume batek. “Justukoa erosten nuen. Okelarekin salda egiten nuen. Okela gizonak jaten zuen, eta nik salda hartzen nuen. Ez, ez. Tratatu txarrak ez dut sekula jaso nik. Kontua da nire senarra zekena dela”. Honelaxe esan nion: “ Ez ba,

maitea! Zure senarra ez da zekena, zure gizona erasotzailea da, eta zu, biktima". Eta pentsa zer izan daitekeen 30-35 urtez tratu txar psikologikoak transtorno somatikoen bidez agertzea: antsietatea, estresa, fibromialgia, urdail-leko minak, hiato-herniak...

♦ **Eta nola lagundu ahal diegu zapaldua izatearen kontzientzia hartzen?**

Ez da erraza. Normalizat duten hori deseraiki behar dute, eta hori ez da bi egunean lortzen. Beraiek egin behar dute, baina lagundu behar diegu barruan dutena ateratzen. Irainak, umiliazioak, menpeko egoerak, eraso fisikoak, gutxiespenak... horiek denak ikusarazi behar dizkiegu eta isolamendu egoeratik atera, askotan bakarrik daudelako eta ez dutelako sekula aisialdirik ere izan, eta ondorioz, ez direlako sozializatu. Badaude soluzio batzuk terapiak izan ez arren, eragin terapeutikoa dutenak: ahalduntze tailerrak, aisialdi-eskaintzarako bideak errazteko saiokak, trebatze psikologikorako eskolak... 2.000 emakume laginarekin egin dugun azterketan, erasotzailearekin bizi diren 70 urtez gorako emakumeen indizea %13koa da, eta alargunena %52koa. Alargunduta dauden horietako asko 50 bat urtean egon dira teiltupe berean erasotzailearekin bizitzen.

♦ **Indarkeria matxista jasan dutenak ingurukoengan bilatzen dute sarri babesa, baina denok dakigu adinarekin zirkulo hori murrizten joaten dela.**

Ikaragarri murrizten da, gainera. Seme-alabak ere ez daude beti laguntzeko. Hasteko, gehienetan ez dira gurasoenean bizi. Nolanahi ere, esandakoa: gurasoekin bizi edo ez, seme-alaben erantzuna ez da beti komeni dena izaten. Erasosistema horretan hezi diren umek askotan ama egiten dute horren errudun eta bizkarra ematen diote. Ez dira kontziente eta ez dira gai ama egoera horretatik ateratzeko, eta harekin batera, euren buruak askatzeko. Badira gurasoak banantzea ikusi ezin dutenak ere. Berekoikeriz jokatzen dute sarri. Badakite gurasoak ba-

nandu ezker, bi adineko zaindu beharko dituztela: ama eta aita, eta banandu ezean, amak zintzo beteko duela zaintzaren ardura, gauza den artean. Eta pentsa zein gogorra den hori, norbere erasotzailea zaindu behar izatea. Batzuk kontziente izango dira ez dutela merezitako tratua jaso, baina horietako gehienak ere zorretan sentitzen dira gizonarekin, euren seme-alaben aita delako eta uste dutelako, gainera, hark mantendu dituela bizi osoan. Guk uste baino emakume gehiago daude egoera horretan. Adineko bat zaintzea beti bada zaila, atera kontuak zer izan behar den urteetan zapaldu zaituen hori zaindu behar izatea.

“Ai, neska, nire adinean eta gelditzen zaidanerako...’ esaten dizute adineko andrek. Oker handia da hori pentsatzea”

♦ **Garbi dago adinekoekin lan egiten duten profesionalak prestatzen ere lan handia dagoela egiteko. Nondik hasi beharko genuke?**

Zalantzarik gabe. Ezinbestekoa da. Prestatu behar ditugu tratu txar kasuak antzemateko, eta behin kasu bat identifikatutakoan, biktima horiek behar diren lekura bideratzeko. Eguneko zentro batean lanean ari denak lagundu diezaioke emakume bati biktima dela konturatzen, baina gero emakume horrek genero indarkerian espezialdutako profesional baten laguntza behar du. Beraz, bi lan-lerro dauzkagu: batetik, adinekoekin lanean ari direnak trebatu behar ditugu indarkeria kasuak antzemateko, eta bestetik, genero indarkerian espezialdutako profesional gehiago sortu behar ditugu.

♦ **2.000 emakumerekin jardun zarete lanean. Jakin nahiko nuke nola bizi duten emakume horiek parekidetasuna eta indarkeria matxista.**

Genero-berdintasunaren kontu hau oso berandu iritsi zaie gehienei. Badira botere-harremant desorekatuak ikusteko gai direnak, baina gutxiengoa dira. Indarkeria matxista jasan dutenekin hizketan hasten zara eta berehala hasten zaizkizu gizonaren jarrera zilegitzen. ‘Orain emakumeak ez daude ezer onartzeko!’, ‘gizonak egurtzen ari dira!’... halakoak esaten dizkizute, eta azaltzen diezunean genero berdintasuna legez arautua dagoela eta esaten diezunean biktimentzako baliabideak daudela, hasten dira poliki-poliki jabetzen naturalizat zuten hori ez dela horren naturala. Eta izugarriko poza hartzen dute ikustean ondo bidean hurrengo belaunaldiak ez dutela eurek bizi izan dutena bizi beharko.

♦ **Zein mezu eman beharko genieke adineko emakumeei?**

Sekula ez dela berandu. Askok esaten dute: ‘Ai, neska, nire adinean, gelditzen zaidanerako...’. Oker handia da hori. Ikasi behar dute euren burua maitatzen eta ahalegina egin behar dute bizi diren artean duintasun handiagoz bizitzen, bizi-kalitate hobea izaten. Ahaleginak merezi du, ulertzea kostatzen zaien arren. Emakume gazteagoek itxaropenari eusten diote. Aukera ikusten dute bizitza berri bat hasteko, baina adinekoen kasuan zailagoa da harreman gatazkatsu hori etetea. Errudun sentimendua bera ere handiagoa izaten da adineko emakumeetan. Gure amonak Eguberriro esaten zigun: ‘la datorren urtean hemen nagoen!’. Adin horretako emakumeei zaila egiten zaie bost urtera proiektatzea eta ez dute etorkizunik ikusten. Hor dago arazoa.

Besteentzako bizi gara emakumeok sarri, hala hezi gaituztelako, baina geure burua gehiago estimatzen ikasi behar dugu. Geu gara lehenengo, eta garen modukoak onartzen ez gaituenak ez gaitu merezi.

Sekula ez beste jende gerturatu zen barixakuan Mendaron odola ematera, 83 lagun, eta horietatik bederatzi estreinakoz

Inoiz baino jende gehiago batu zen barixakuan Mendaroko Ikastolan, odola emateko asmoz. 1999. urtean, egun bakar batean, 75 lagunek eman zuten odola Mendaron, eta egun hartakoa gaingintzeko erronka jarri zuten Odol Emaileen Elkarteak. *Baietz 76!* kanpaina abiatu zuten sare sozialetan, odola emateko ordutegia ere handitu zuten eta odola ematen zutenentzako Mendaroko Landa erretegiko pintxoak izango zirela ere aurreratu zuten zabaldu zituzten oharretan. Eta herritarren erantzuna "izugarria" izan da. Azkenean, 83 lagun gerturatu ziren odola ematera, horietatik bederatzi lehenengoz. Odol Emaileen Elkarteak esker on hitzak izan ditu herritarrentzako, eta bizia ematen jarraitzera animatu ditu.



Umeentzako jolas-parkea egiteko lanak hasi dituzte San Roken



Umeentzako jolas parkea egiteko lanak hasi dituzte asteon San Roken. Zehatzago esateko, 16. eta 18. etxe-blokeen artean eraikiko dute parkea, lorategi-plazatxoan. Elgoibarko Udalak 32.220,65 euro (BEZ kanpo) inbertituko ditu. Martitzenean hasi zituzten lanak eta Udalak aurreikusten du hilabeteko epean amaituko dituztela, beti ere, eguraldiak laguntzen badu. Maderplay enpresak jarriko ditu jolasak: txirrista bat, tunel bat eta bi malguki, besteak beste. Jokoak altzairu herdoilgaitzez eginak daude, eta parkean sortuko duten erliebean integratuko dituzte Josu Arraiz Hirigintza sailburuak aurreratu duenez.

Abenduaren 2an egingo dute Mendaron Kontzezio Azoka

Abenduaren 2an izango da aurten Mendaroko Kontzezio Azoka. Abenduaren 8an ospatzen da berez Kontzezio eguna, eta normalean Konstituzio eguneko jai-zubiaren bueltan izaten da urtero egun horri lotutako azoka, baina aurten, abenduaren 8a barixakua izanda, aurreratzea erabaki dute, jai-zubian jende asko herriatik kanpora joango delakoan. 9:30ean zabalduko dute azoka eta egitaraua aurreko urtekoaren oso antzekoa izango da. Gaur zortzi emango dugu egitaraua zabalago, baina badira bi kontu aipagarri: batetik, Haritz Dantzari Taldekoek eskainiko duten dantza-saioa, eta bestetik, Maite Maiorari egitekoa dioten ekitaldia.

Josu Mugerza sukaldariaren pintxoak dastatzeko aukera gaur Merkatu Plazan

Merkatu Plazako Barren azoka elkarteak pintxo dastaketa berezia prestatu du gaurko, Udalaren laguntzarekin. 18:00etatik 20:00etara izango da pintxoak dastatzeko aukera, doan, Merkatu Plazan. Belaustegi jate-txeko Josu Mugerzak prestatuko ditu.

Bigarren eskuko merkatua jarriko dute bihar Lekuederren, Mugikortasun Asteko ekintzen barruan

Autoek hartzen duten gune publikoaz ohartarazteko astea izan da honako hau Elgoibarren, eta ez da oharkabeen pasatu. Ez behintzat aukiz eta lorontzi handiz inguratuta Kalebarren plazan jarri duten belar artifizialeko gunea, asko izan direlako zer oten den galdezka urreratu direnak. Bada, aldi baterako jarri du Udalak gune hori, normalean autoei lagatzen zaien lekua berreskuratzeko. "Helburua da ibilgailuei zer gune lagatzen diegun konturatzeko", dio oharrak. Era berean, herriko erakuslehoak eta hormak ere apaindu dituzte horma-argazki handiekin eta bestelako hainbat ekimen ere egin dira adinekoen taldekoekin eta eskola-umeekin.



Biharko, berriz, bigarren eskuko merkatua antolatu dute. Lekuederren izango da, eta herriko eskola-umeek etxean egoera onean dituzten jostailuak eta abar salduko dituzte. Parrokiako Misio taldeak, bestalde, bidezko merkataritzako produktuak salduko ditu, eta Kalegoen plazan patinetan ibiltzeko ordubeteko bisario berezi egingo dira: 10:30ean eta 12:15ean. Parte hartzeko gutxienez 5 urte izan beharko dira, eta haurra gai izan beharko da inoren laguntzarik gabe patinetan zutik mantentzeko. Interesatuek idatzi ingurumena@elgoibar.eus helbidera.

'Bacalaos Alcorta' pintxo lehiaketako finalean lehiatu dira San Roke tabernakoak



Eibarko Udalak antolatu ohi duen Bakailaoaren Astearen barruan, bakailao-pintxo lehiaketa jokatu zuten zapatuan Eibarren, Alcorta Bakailaoak enpresak antolatuta. Hego Euskal Herriko txapeldunak lehiatu ziren bertan, eta haiekin batera, Elgoibar, Eibar eta Ermuko onenak. San Roke tabernako sukaldariek ordezkatu zuten Elgoibar zapatuko saioan, eta Durangoko Kobikak irabazi zuen lehen saria, Codwich ize-neko pintxoarekin.

Meka ikastetxeko ikasle talde batek hartuko du bihar hileko azken zapatuko ferriako txosna

Hileko azken zapatuko feria eguna da bihar Elgoibarren, eta ohi legez txosna egongo da Kalebarren plazan. Herriko elkarteek txandaka kudeatzen dute txosna eta biltzen duten dirua autofinantziaziorako izaten da. Bihar, baina, Mekan Gizarteratzea ikasten diharduen ikasle talde batek kudeatuko du. Iaz, Aspanogi haur minbizidunen guraso elkarteari buruzko lan bat aurkeztu zuen talde horrek eta taldekideei iruditu zitzaizen zer edo zer egin zezaketela trukean haiei laguntzeko. Hala, bihar goizez, txorizo pintxoak, salda eta Aspanogiren materiala salduko dituzte, eta biltzen duten dirua Aspanogiri emango diete gero. Era berean, jolasak ere egingo dituzte 11:30etik 13:00ak bitartean, eta ondoren, argazki erraldoi bat egin eta otar bat zozketatuko dute.



“Udal Musika Bandak sekulako aberastasuna dauka”

Aurtengo Santa Zezilia Eguneko kontzertua Udal Musika Bandako zuzendari gisa biziko zuen azkena izango zela iragarri zuen iaz Txomin Mujikak (Elgoibar, 1952), eta iritsi da eguna. Ia 50 urtean Udal Musika Bandako kide izan ostean, domekan hartuko du erretiroa. Bonbardinoa, tronboia eta baxua jo izan ditu bandan, eta horrez gain, txistua eta dultzaina ere jotzen ditu. Aurrerantzean entzule moduan biziko ditu Udal Musika Bandaren kontzertuak, baina azken urteotan egin duen bezala, kontzertuetako obrak aurkezten jarraituko du.

- AINHOA ANDONEGI -

► TXOMIN MUJIKAK UDAL MUSIKA BANDA KO ZUZENDARIA

◆ Zer moduz zaude Udal Musika Bandako zuzendari gisa emango duzun azken kontzertuaren atarian?

Sentsazio desberdinak ditut barruan. Batetik, apur bat penaz nago, baina beste aldetik, gogoz. Ia 50 urte egin ditut Udal Musika Bandan, 27 urte zuzendari-orde, eta azken zazpirak zuzendari gisa. Uste dut jakin egin behar dela etapak amaitzen. Gazteei erreleboa eman behar zaie. Tristeia da norberak alde egin beharrean, besteek bidali behar izatea. Kontzertu berezia izango da domekakoa, eta seguru emozionatu egingo naizela.

◆ Bandaren kontzertuak zuzentzeaz gain, azken urteetan aurkeztu ere egingo dituzu, eta badakigu herritarrei izugarri gustatzen zaizkiela aurkezpen horiek. Nork egingo ditu aurrerantzean?

Ez zen hori nire asmoa, baina lan horretan neuk jarraituko dut. Nik banda erabat utzi nahi nuen, baina banda barruan askok eskatu zidaten lan horrekin jarraitzeko. Esan nien aurkituko nuela zeregin horretarako nire ordezkoa, baina kalabazak jaso nituen. Nire inizatibaz hasi nintzen 1983an kontzertuak aurkezten. 34 urte daramatzat horretan, eta jendea ohitu egin da, beraz, ordezkorik aurkitu ez dudanez, neuk jarraitzea erabaki dut. Bandako kideei jakinarazi nienean jarraituko nuela denak txaloka hasi zitzaizkidan. Bandaren kontzertu guztietara joango naitenez, ez zait kostatzen kontzertuak aur-

keztea, eta gustura egingo dut. Lan hori egiteko ez daukat entseguetara joan beharrik, eta lasaiago biziko naiz.

◆ Gorka Mujikak beteko du zure lekua. Esku onetan geratzen da musika banda?

Dudarik gabe, oso esku onetan geratzen da. Gorka Mujika punta-puntako musikaria da, mutil langilea, musikari profesionala eta musikaz asko dakiena. Lan bikaina egingo du. Juanma Saez izango da zuzendariordea. Etorkizun oparoa dauka Elgoibarko musika bandak.

◆ Noiz eta nola barneratu zinen musika munduan? Nondik datorkizu musikarako zaletasuna?

Musika barruan sentitzen nuen ume-umetatik, eta Jose Antonio Ezeiza Santa Klarako organo-jolearekin hasi nintzen musika ikasten. Hark instrumentu pila bat jotzen zituen, eta izugarri miresten nuen gizon hura. Gero txistua ikasteko aukera izan nuen, Patxiko Etxeberriarekin. Askok ikasi genuen gizon harekin txistua jotzen, gizon ona zen benetan, eta oso gustura aritu nintzen berarekin. Gure etxean, baina, ez zegoen musikarako zaletasunik, eta gurasoengandik ez nuen inolako babesik izan hasieran. Garai hartan musikari izatea ez zegoen ondo ikusita, eta gurasoek ez zuten ulertzen, orduko guraso gehienek bezalaxe. Ikasteari utziko niola uste zuten. 14 urterekin, 4. errebalidako azterketaren bezperatan txistua kendu zidan amak, burua ikasketetan jartzeko

aginduarekin, baina berehala lortu nuen beste txistu bat. Domeketan musika banda ikustera joaten nintzen. Orduan “bailableak” egoten ziren plazan, eta niretzako sekulako gozamina izaten zen banda entzutea. Instrumentu guztien artean bonbardinoa zen nire gustukoena. Ezkutuan bonbardinoa ikasten hasi nintzen, etxean ezer esan gabe. Bitartean, Angelita Zabaletarekin solfeoa ikasten hasi nintzen. Gero, Gasteizera joan nintzen interno ikasketak egitera, eta hango fraideekin ere solfeoa eta harmonia ikasten jardun nuen, beti ere gurasoen ezkutuan. Patxiko Etxeberriak emandako gomendioa izan zen hura. Gogoratzen naiz txistua ikastera berarengana joan nintzenean nola esan zidan lehenengo solfeoa ikasi behar nuela. Amorrua eman zidan, nik instrumentua jotzen hasi nuelako berehala, baina gerora konturatu nintzen solfeoa zela guztiaren oinarria, eta Patxikok emandakoa bizitzako gomendiorik onenetariko izan zela.

◆ Noiz sartu zinen musika bandan?

1970eko Santa Zezilia Egunean debutatu behar nuen bandarekin bonbardinoa jotzen. Baina Sanbartolomeetan *Ballek*, bandako zuzendariak, deitu zidan esaten tronboia falta zela bailableetan joteko, eta ea nik joko nukeen. Hura zen poza! Baina etxean esan nuenean disgustua hartu zuten. Haiek ez zekiten ezkutuan bonbardinoa jotzen ikasi nuela, eta ez zuten nahi ni bandan sartzea. Ikasketak



utziko nituen beldurra zeukaten, eta euren-
tzat garrantzitsuena ikasketak ziren. Alde
horretatik nire debuta tristea izan zen. Ge-
rorra erabat aldatu zuten jarrera gurasoek
eta kontzertu guztietara joaten hasi ziren.
Badakit harro sentitzen zirela.

♦ **Eta gurasoek nahi zuten bezala, goi mailako ikasketak ere egin zenituen, ezta?**

Bai, Ekonomia ikasi nuen Bilbon, Sa-
rrikoko unibertsitatean. Bitartean Bilboko
kontserbatoriora joaten nintzen, bonbar-
dino klaseetara, eta bide batez, solfeo-
ko azterketak egin nituen. Bi egunetan egin
nituen bost urtetako azterketak eta dena
gaiinditu nuen. Orduan eskuratu nuen sol-
feo titulazioa. Ekonomia ikasketak amaitu
ondoren, Banco de Bizkaian hasi nintzen
lanean, eta gero Kutxan jardun nuen la-
nean 27 urtez. Arratsaldeak libre izaten
nituen musikari eskaintzeko, eta ordu pila
bat eskaintzen nizkion musikari. Besteak
beste, solfeo klaseak ematen nituen, mu-
sika eskola sortu baino lehen. Gaur egun
bandako kide diren hainbat musikaririk ni-
rekin ikasi zuten solfeo, eta ikasle izan ni-
tuen batzuk musikari profesionalak dira
gaur egun. 2006an ikusi nuen BilbaoMu-
sikan gerentea behar zutela, eta aurkez-
tea erabaki nuen. Udal Musika Banda,
Udal Txistulari Banda eta Udal Musika Es-

“Dena eman dit bandak, erabat bete nau”

kola daude BilbaoMusikaren baitan.
Plaza atera nuen, eta han egin nituen la-
neko azken urteak. Ia hamar urtez jardun
nuen han lanean, jubilatuta nintzen arte.
Bandari eta Bilboko lan horri esker musi-
kari eta zuzendari on asko ezagutu ditut,
eta ni neu ere ezaguna naiz leku askotan.
Herri desberdinetara joaten naizenean
jende askok agurtzen nau kalean.

♦ **Elgoibarren ere pertsona ezaguna zara, eta argi geratu zen duela bi urteko inauterietan, herritar bat zutaz mozorrotu zenean. Nola hartu zenuen keinu hura?**

Oso ondo hartu nuen! Sekulako ba-
rreak egin nituen. Detaile guztiak zaindu
zitzen gainera, baita gerrikoan eramaten
ditudan giltzak ere! Hirurak zeuden oso
ondo, bai Edu Arrillaga eta baita Julen
Agirrerren paperean sartu zirenak ere. Po-
pularrak gara herrian, eta tokatzen dira
horrelakoak. Intenzio onez eginiko keinua
izan zen, eta modu onean egiten diren

gauzak ezin dira inoiz txarrera hartu.

♦ **Ia 50 urte egin dituzu Udal Musika Bandan. Zer eman dizu musika bandak eta zuk zer eman diozu berari?**

Dena eman dit musika bandak, erabat
bete nau, bai musika aldetik eta baita ha-
rremanen aldetik ere. Musikari, zuzenda-
riorde eta zuzendari gisa bizi izan dut
banda, eta sekulako esperientzia izan da.
Aurrerantzean ere badakit entzule gisa be-
teko nauela. Batek baino gehiagok pen-
tsatuko du herri txiki bateko banda besterik
ez dela, baina Elgoibarko musika bandak
sekulako aberastasuna dauka, eta gure ar-
teko harremana izugarria da. Adin des-
berdinetako musikariak gaude. Nik
brometan esaten dudan bezala badauge
hirugarren adinekoak (Gorriti, Zapata, Luis
Mari Zubiaurre, ni...) eta badaude gaz-
teak ere, baina gure arteko giroa bikaina
da. Irteerak egiten ditugunean pila bat go-
zatzen dugu elkarrekin eta horrek poz
handia ematen dit. Eta nik zer eman dio-
dan? Neukan onena. Saiatu izan naiz
beti nire lana ahal nuen ondoen egiten.
Une honetan izugarrizko taldea daukagu.
52 lagun gara, emakumeak eta gizonak,
eta instrumentu aldetik ere oso orekatuta
dago. Giro ezin hobea daukagu, eta hori
igarri egiten da kontzertuetan. Beste herri
askotan bandako emakumeak ezkondu

“Hainbeste satisfazio eman dit bandak ezin dudala une bakar bat aukeratu”

edo umeak izaten dituztenean banda utzi egiten dute, eta Elgoibarren ez. Hartzen dituzte beraien baimenak, jakina, baina gero itzuli egiten dira. Nik txapela kentzen dut jarrera horren aurrean.

♦ Publikoarekin sekulako harremana dauka bandak. Zein da sekretua?

Ez dakit, baina sekulako harremana daukagu ikusleekin. Kanpotik etorri izan dira musikariak gurekin jotera, eta denak harrituta geratzen dira herritarrek ematen diguten erantzunarekin. Ez da bakarrik kontzertuetara jende asko joaten dela; hori baino gehiago da erakusten duten jarrera. Publikoa txaloka hasten denean igarri egiten da txaloak benetakoak direla. Tokatu izan zait beste herri batzuetan publikoak konpromisozko txaloak ematea, baina Elgoibarren txalo zaparrada beroa jasotzen dugu beti. Banda eta Elgoibarko publikoa oso gertu gaude, eta konplizitate handia daukagu. Sekulako zorzea daukagu, eta horrelakorik ez dut ia inon ikusi. Elgoibartarrek musika banda bizi egiten dute. Eibarren eman izan ditugu kontzertuak, eta trenan jendez beteta joan izan da gu ikustera. Harro eta pozik sentitzen gara. Publiko horri esker bandako kideak ere ilusio handiagoarekin jotzen dute, eta ilusioz joaten dira entseguetara.

♦ Azken bi urteotan publiko gaztea erakartzeko ekimenak ere egin dituzue. Zein balorazio egiten duzu?

Oso-oso ona; sekulako arrakasta izan dugu. Iaz rock bertsoak jo genituen Malan, eta aurten Celtas Cortos taldearekin eskaini dugu kontzertua plazan. Kontzertu desberdinak eta berritzaileak izan dira biak, eta hori herritarrek eta baita musikariek ere eskertu egiten dute.

♦ Zein izan da musika bandarekin bizi izan duzun unerik onena? Eta txarrena?

Orena aukeratzea ez da erraza; hainbeste izan dira! Baina txarrena berehala esango dizut: Zuzendari bezala egin ditudan zazpi urteotan bandako hiru musikari hil dira, eta hori izan da dudarik gabe bandan bizi izan dudako gogorrena. Bittor Zubiaurre, Andres Granados eta Bittor Alberdi. Neu naiz adinean bandako nagusiena, eta hiru

musikari gazteren heriotza bizitzea latza izan da. Zorionez, momentu onak askoz gehiago izan dira. Hainbeste satisfazio eman dit bandak, ezin dudala une bakar bat aukeratu.

♦ Urtean zehar izaten dituzuen ekintzen artean zein da gehien gustatzen zaiuzuna?

Santa Zezilia Eguna. San Bartolome Eguna ere oso egun polita izaten da, baina musikarien eguna Santa Zezilia Eguna da, eta niretzako hori da egunik onena. Kontzertu berezia egiten dugu, gero bazkaria eta han biltzen gara denak. Egun hori noiz hasten den jakiten dugu, baina ez noiz amaitzen den.

♦ Eta aurtengo Santa Zezilia Eguna are bereziagoa izango da zuretzat.

Bai, neuk erabaki nuen Santa Zezilia Egunean jubilatzea. Baina oro har, urte hau guztia izan da berezia niretzat. Erabaki nuenean aurten jubilatuko nintzela, atzera-kontu moduko bat hasi zen niretzat. Aurten bizi izan ditut Gabonetako azken kontzertua, Errege Eguneko azken kontzertua, azken Trinitateetako danborrada, azken San Bartolome Eguna... Baina domekakoa izango da bereziena, dudarik gabe.

♦ Musika bandaz gain, Mauxitxa txarangaren ibilitakoa al zara?

Mauxitxa txarangaren sortzaileetako bat izan nintzen ni! 1970ean, bandan sartu nintzen urte berean, etorri zitzaizkidan Zubiaurre anaiak eta Gorriti, txaranga bat sortzeko partitura eske. Emango nizkiela esan nien, baina neu txarangako kideetako bat izateko baldintzarekin. Luis eta Bittor Zubiaurre anaiak eta ni haizezko instrumentuekin irten ginen; perkusioan, Rikardo Mujika *Fonta*, Juan Luis Arregi *Planti* eta Gorriti, eta zuzendaria, Mauxitxa. Gerora etorri ziren *Katxo* eta Jose Angel Zubiaurre.

Sekulako ilusioarekin hasi ginen, eta begira ordutik txarangak egin duen bidea! Beti izan naiz perejil samarra.

♦ Zure musika hastapena ez zen erraza izan, gurasoek hasieran ez zizutelako babesik erakutsi. Zuk, ordea, bi semeak musikariak dituzu. Nola aldatzen diren gauzak.

Biei esan nien musikak niri eman didanaren laurdena ematen bazien euei, ondo zeudela. Biei erakutsi nien nire babesia hasieratik, eta biak ari dira musikagintzan. Baina nire gurasoen jarrera normala izan zen garai hartarako. Nire gurasoak ez ziren tiranoak, baina garai hartan musikari izatea eta zirkoko trapezista izatea antzerakoa ziren. Lau semeen artean, gainera, nagusiena naiz ni, eta bide guztia egiteko neukan. Gero hirugarrenak dantzari izan nahi zuela esan zuenean ere izan ziren koplak etxean! Nik bidea erraztu nion anaiari, baina dantzaria?! Gure aitak ezin zuen ulertu. Gogoratzen naiz oraindik anaiak deitu zidala esaten Bruselako Mudra Ballet Siglo XX-ko eskolan plaza lortu zuela eta neuk kontatzeko aitari. Plaza lortzea zen errazena! Etxean kontatzea zen zaila! Amari esan nion lehenengo, eta amak disgustua hartu zuen, baina aitari esan nionean, asko haseurretu zen. Gero, baina, harro zegoen aita. Josu Scala de Milan dantza taldean aritu zen, eta aita ez dakit noraino joaten zen telebista italiarra ikustera, semea ikusteko. Garai hartako ohiko gurasoak ziren. Hasieran kostatu zitzairen, baina gero, bai ni eta baita Josu ere babestu gintuzten, hil ziren arte.

♦ Hemendik aurrera nola biziko duzu musika?

Lasaiago biziko naiz, baina ez dut musikarekin dudaren harremana etengo. Entzule gisa joango naiz aurrerantzean bandaren kontzertuetara, eta beste era batean gozatuko dut. Bestalde, orain arte ere abesti batzuk konposatu izan ditut, eta hemendik aurrera ere egingo dut zeozer alor horretan. Dultzaineroekin ere jarraitzeko asmoa daukat, hauspoak ematen didan artean.



Elgoibartarrok behin eta berriz bildu gara plazan euskararen alde gaudela aldarrikatzeko.

2013an euskararen aldeko manifestua irakurri eta kandelak piztu genituen Kalegoen plazan.



2014an *Euskaraz bizzi nahi dut!* flasmoba dantzatu genuen.

2015ean *Beitxu, beitxu!* lipduba sortu genuen.



2016an Kalegoen plaza eta Maalako parkea lotu genituen horretarako osatu genuen jende-katearekin.



*Aurten euskararen alde egotetik
euskararen alde egitera pasako gara;
egotea ez delako nahikoa egiten ez badugu.*

Euskararen kontua zure ardura ere badela pentsatzen baduzu, azaldu

**Kalegoen plazara
abenduaren 3an, igandea,
13:00etan**



*EUSKARALDIA **proiektuaren aurkezpen publikoa***

Babesleak:



elgoibar



DANOBATGROUP

Euskara eta lan mundua lotzeko lehiaketa antolatu du DANOBATGROUPEk

Kooperatibak dituzten herrietako herritarrentzako lehiaketa izango da

Euskara eta lan mundua uztartuko dituen lehiaketa jarri du martxan DANOBATGROUPEk Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, *Euskara aldean, erabili lanean* lemapean. Iazko bidetik jarraituz, aurten ere, DANOBATGROUPEk kooperatibak dituen herrietako bizilagun guztiek ere parte hartu ahal izango dute lehiaketan.

Lehiaketa modu digitalean antolatu dute, eta parte hartzeko <https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2017.html> helbidean sartu behar da. Webgunean klikatu eta kooperatibari buruzko galdera orokor batzuei erantzun ondoren, DANOBATGROUPEko hiztegi teknikoan sartu eta hainbat hitzen ordainak aukeratu beharko dira, besteak beste.

Abenduaren 11ra arteko epea izango da lehiaketan parte hartzeko, eta parte hartzaile guztien artean bi lagunentzako bi bono zozketatuko dituzte, Euskal Herriko nekazal-etxe batean asteburu bat pasatzeko.

EUSKARAREKIKO KONPROMISOA

DANOBATGROUPEk konpromiso sendoa du gizartearekin, eta hainbat ekimenekin elkarlanean ari da, besteak

beste, ondorengoak sustatzen eta bultzatzen: enpresa jardueraren eremu geografikoan ekonomia soziala, heziketa eta prestakuntza sozio-kooperatiboa eta profesionala, izaera soziokulturaleko eta asistentzialeko jarduerak, elkartasuna eta interkooperazioa, ikerketa eta garapena, eta jarduera berriak zein interes bereziko proiektuak.

Eta gizartearekiko konpromiso sendo horretan kokatzen da euskararekiko konpromisoa ere. DANOBATGROUP taldeak euskararekiko eta euskal kulturarekiko atxikimendu eta sentsibilizazio berezia erakutsi izan ditu sortu zenetik. Harreman sare zabala du, eta

bezeroekin sarri ingelesez baliatu behar izaten bada ere, bertako langile, hornitzaile, bezero, ikastetxe, administrazio eta abarrekin euskara erabiltzeko konpromiso sendoa du, eta horren adierazgarri da kooperatiba guztietan euskararen erabilera bultzatzeko dituen planak, lortutako eta lortzeko bidean dauden Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiriak... Euskarak leku garrantzitsua dauka kooperatibaren eguneroko lanean.

Euskara aldean, erabili lanean lemapean, aldean dugun euskara hori lanean, etxean, kalean eta beste edonon erabiltzea nahi dute.

Abenduaren 11ra
arteko epea
izango da lehiaketan
parte hartzeko



DANOBATGROUP

Euskara aldean, erabili lanean

HARTU PARTE DANOBATGROUPEn EUSKARAREN EGUNEN LEHIAKETAN!

Sartu lehiaketako estekan, ezagutu euskararen arloko gure ekimenak eta irabazi bi lagunentzako bi bono zozketatuz

<https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2017.html>

*Parte hartzeko epea: 2017ko abenduaren 11.

DANOBATGROUP KOOP. E. | DANOBAT KOOP. E. | GOIMEK KOOP. E. | GOITI KOOP. E. | IDEKO KOOP. E. | LATZ KOOP. E. | SORALLUCE KOOP. E.

'Gure zuhaitzak landatzen' ikastaroa abenduaren 14an izango da



Martitzenean aurkeztu zuen Ibon Serranok *Gure zuhaitzak landatzen* ikastaroa, Pello Arrieta eta Javier Elorza historiagileen laguntzarekin. Norberaren abizenetan arakatzuz, familiako zuhaitz genealogikoak egiten ikasteko tailerra izango da. Serranok bi urte inguru eman ditu bere familiako zuhaitza osatzen, eta esperientzia hori partekatuko du herritarrekin. Teknologia berriei ematen dituzten aukerak baliatuz zuhaitz genealogikoak egiten ikastea izango da tailerraren helburua. Abenduaren 14an izango da, Mekan, eta partaide bakoitzak ordenagailu bat izango du eskura, Internetarako konezioarekin. 18:00etan hasiko da saioa, eta pare bat orduko iraupena izango du. Gero bakoitzak bere etxean lan egiteko tresnak azalduko ditu Serranok, eta hilean behin bilduko dira bakoitzaren kezka eta zalantzak konpartitzeko. Prozesu guztiak lau bat hilabete iraungo ditu. 27 lagunek eman dute izena dagoeneko, baina abenduaren 5era arte aukera dago oraindik.

Jabier Muguruzaren disko berria hartu du parte Ander Mujika elgoibartarrak



Jabier Muguruza kantautoreak *Leiho bat zabalik* izeneko diskoa argitaratu berri du. Bakarleri moduan hastapenetatik lagundu dion oinarri akustikoa alde batera laga eta formatu elektrikoan ondu ditu disko berria osatzen duten zortzi abestiak. Horretarako, Ander Mujika elgoibartarra izan du bidelagun. Zuzeneko emanaldietan ere biak arituko dira. Elgoibarren martxoaren 11n eskainiko dute kontzertua, Kultur Etxeko Sotoan.

Eguberrietako apaingarriak egiteko tailerra

Familiaren hizkuntza transmisioa lantzeko helburuarekin eguberrietako apaingarriak egiteko, familia tailerra antolatu du Atxutxiamaikaren Kiribilduz egitasmoak Udalarekin lankidetzan, HH4-LH3 adin tarteko umeentzako eta euren gurasoentzako. Abenduaren 2an izango da, 10:00etatik 13:00etara. Saiok 6 euroko prezioa dauka (Elgoibarko Izarrako bazkideek, 5 euro). Interesatuak azaroaren 29ra arteko epea dute izena emateko. Informazio gehiagorako 943 741 626 (Jon) telefonora deitu daiteke.

Tanzania izango da 'Baguaz!' ekimeneko hirugarren helmuga

Datorren martitzenean, azaroaren 28an, izango da *Baguaz!* bidaiari-espereientziak egitasmoaren hirugarren jardunaldia. Oraingoan, Nora Hadik Tanzaniara eginiko bidaiari buruzko azalpenak emango ditu. Kultur Etxean izango da hitzaldia, 19:00etatik aurrera. Egitasmo hau Elgoibarko Izarrak antolatzen du, Udalaren babesarekin.



Santa Zezilia egunaren harira hainbat musika ekitaldi izan dira egunotan Elgoibarren eta Mendaron

Azaroaren 22a da Santa Zezilia eguna, musikarien zaindariaren eguna. Hori dela-eta hainbat musika ekitaldi izan dira astean zehar Elgoibarren eta Mendaron, eta asteburuan ere ez da musika ekitaldirik faltako.

Elgoibarko eta Mendaroko musika eskolek bat egin dute Musika-lean egitasmoarekin. Horren barruan, musika eta dantza uztartu zituzten martitzenean Mendaron Ameikutz musika eskolako ikasleek eta trikitixa taldekoek, eta azken urteotan musika eskolako zuzendari izan den Ion Garmendiari eskerrak emateko baliatu zuten ekitaldia.

Elgoibarren, bestalde, astelehenean hasi zituzten Inazio Bereziartua eskolan Santa Zeziliaren omenezko ekitaldiak, musika eskolako auditoriumean eskaini zuten kontzertuarekin eta diploma banaketarekin. Atzo, trikitixa, akordeoi eta pandero joleak kalejiran irten ziren kalera; eta gaur, Musika Eskolako Txaranga irtengo

Elgoibar



Mendaro



da kalejiran. Kalegoen plazatik irtengo dira 19:00etan eta Malako parkeraino joango dira. Jarraian, Musika Eskolako Koroak kontzertua emango du Maalan.

Elgoibar Ikastolako ikasleen kalejira

Azken urteotako ohiturari jarraituz, Elgoibar Ikastolako ikasleek kalejira egin zuten eguaztenean, Santa Zezilia Egunean bertan. 8:30ean batu ziren Kalegoen plazan, eta musika instrumentuak joz eta kantuan egin zuten Ikastolara arteko bidea.

Santa Zezilia Egunaren bueltako ospakizunak domekan bukatuko dira, Udal Musika Bandaren saioarekin. 9:45ean, kalejira egingo dute, eta 12:30ean kontzertua eskainiko dute Herriko Antzokian. Kontzertu hau izango da Txomin Mujjikak zuzendari gisa emango duen azkena.

Pintxo-jolas dastaketa egingo dute gaur Elgoibarko Gaztetxean

Atxutxiamaiak, Ludotekak eta Gaztelekuak jostailuen erakusketa antolatu dute Udalaren babesarekin, Eguerrietako kanpainari begira gurasoei jostailu egokia aukeratzen laguntzeko. Atzo zabaldu zuten erakusketa, eta bihar goizera arte egongo da zabalik. Egitasmo horren barruan, pintxo-jolas dastaketa egingo dute gaur Gaztetxean, Gazte Asanbladarekin elkarlanean. Pintxo-jana eta karta eta mahai-joko dinamizatuak egingo dituzte (21:00).

Abenduaren 4ra arte dago Negulekuan izena emateko aukera

Atxutxiamaiak eta Ludotekak prest dute neguko eskaintza, eta gogorarazi dute abenduaren 4ra arte egongo dela izena emateko epea. Aurten ere eskaintza oparoa prestatu dute, eta urteroko txokoz gain, hainbat ekintza gehigarri antolatu dituzte familientzat eta umeentzat: familia tailerrak, ikuskizunak, familia irteera eta SotoTK.

Matrikula bi epealditan ordaintzeko aukera egongo da, eta horrez gain, Elgoibarko Udalak diru-laguntzak emango dizkie baliabide nahikorik ez duten familiei. Kuotaren %70 ordainduko die DSBL, DBE eta GLL laguntzak jasotzen dituztenei, eta kuotaren %30 familia ugarietara eta txokoetan bigarren seme-alaba bat apuntatzen dutenei.

Mendaroko Gabonlekuak ere Elgoibarko Izarrak kudeatuko ditu aurten. Interesatuak azaroaren 30era arte daukate izena emateko epea. HH3tik LH6ra arteko umeentzako eskaintza prestatu dute, abenduaren 26tik 29ra eta urtarrilaren 2tik 5era. Prezioa 45 eurokoa da, baina deskontuak ere izango dira. Familia ugarietara %25eko deskontua aplikatuko zaie hirugarren umeagatik eta gizarte zerbitzuetako onuradunei %50ekoa. Elgoibarko Izarrako bazkideek %10eko deskontua izango dute. Informazio gehiago 943 741626 edo 943 748 883 telefonoetan.

LAN-DEIALDIA

BARRENERAKO KAZETARIA BEHAR DA

ESKAITZEN DA:

- Ordezkapen bat egiteko jardunaldi osoko lan kontratua

ESKATZEN DA:

- Euskara maila ona: ahoz eta idatziz.
- Kazetaritza testuak idazteko gaitasuna.
- Taldean lan egiteko gaitasuna.
- Informatika ezagutza: Quark Xpress.

BALORATUKO DA:

- Elgoibar edo ingurukoa izatea.
- Euskalgintzan jardun izana.
- Kazetari lanetan eskarmentua izatea.



CURRICULUMAK BIDALTZEKO EPEA:
abenduak 5, asteartea

barren@elgoibarkoizarra.eus
Kalebarren plaza, 2. 20870 ELGOIBAR
943 744 112



ELGOIBARKO IZARRA Euskaltzaleon Topagunea elkarteko BAZKIDEEN URTEKO BATZAR OROKORRA

EGUNA:
abenduak 12, asteartea

ORDUA:
19:00

TOKIA:
Kultur Etxeko hitzaldi-gela

AZTERGAIK:

1. Lehendakariaren agurra
2. Zuzendaritza Batzordearen aldaketa
3. 2016ko lan-ido nagusien aurkezpen-balorazioa eta diru-kontuen memoria
4. 2017ko lan-ido nagusien aurkezpen-balorazioa eta diru-kontuen memoria
5. 2018rako erronka nagusiak



Egiten duguna gara;
etorri Elgoibarko Izarrak egiten duguna ezagutzera.



Lagunduko al diguzu ELGOIBARKO IZARRAREN **TONBOLA** OSATZEN?

Elgoibarko Izarraren aldeko
TONBOLA
Abenduak 24,
11:00etatik 14:00etara,
Kalegoen plazan

1.000 erregalu
baino gehiago...

Aurreko lau urteetan TONBOLAK izan duen estimazioak bultzatuta, aurten ere abenduaren 24an Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu Kalegoen plazan. Ehunka erregalu banatzea da gure desioa, baina horretarako zure laguntza behar dugu.

Animatuko zara tonbolarako erregalua ematera?
Animatzen bazara, esan ahal duzun azkarren tonbolarako erregalua emateko prest zaudela. **Abenduaren 1a izango da.**

Harremanetarako:

elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus edo 943 741 626





Iban Murua gailendu da Karakateko igoeran, eta 35 segundotan ondu du berak iaz ezarritako errekorra

Iban Muruak erabateko nagusitasuna erakutsi zuen Karakateko 24. igoeran. Aurten lasterketetan lehiatu ez den arren, Muruak egundoko sasoa erakutsi zuen bere proba kuttuna denean. 26 minutu eta 17 segundotan osatu zuen Kalegoen plazako frontoiko frontisetik Karakateko tontorrera arteko bidea (742 m). Hala, 35 segundotan ondu zuen berak iaz ezarri zuen errekorra. Arkaitez Iruretari esker bidezidor berri bat zegoela jakin zuten Muruak eta beste zenbait parte hartzailek, eta hamar edo hamabost bat segundo aurreztu ahal

izan zituela uste du. Iban Muruak ia lau minutuko aldea atera zion bigarren egin zue Markel Urgoitia otxandioarrari (29:56). Josu Uriarte markinarra sailkatu zen hirugarren postuan (30:01).

Lehia estua emakumezkoetan

Emakumezkoetan, lehia estua izan zuten Ainhoa Lendinez elgoibartarrak eta Andrea Garay gasteiztarrak. Elkarren segidan ailegatu ziren azken metroetara eta bost segundoko aldea atera zion Lendinezek Garay-ri tontorrean, 34 minutu eta 21 segundoko denbora

eginda. Parte hartu zuten 70 lagunetatik sei izan ziren emakumeak. Aurpegi onenaren saria Angel Quntanak irabazi zuen. Parte hartu ezin izan zuten bi lagun ere aipatu behar dira. Batetik, proba bost alditan irabazi duen Iñigo Larizek ezin izan zuen parte hartu ezkonbidaian zegoelako; eta, bestetik, Jose Mari Fernandez Susok ere estreinakoz huts egin du aurten, belauneko minez. Aurrez jokatu diren edizio guztietan parte hartu izan du Susok eta zazpi garaipean lortu ditu. Bideoak eta argazkiak:

www.barren.eus

Alkortako Igoera jokatuko dute bihar, zapatua, Mendaron

Mendaroko Ezker Abertzaleak antolatuta, Alkortako 12. igoera jokatuko dute zapatuan, azaroaren 25ean. 10:30ean abiatuko dira lasterkariak udaletxe aurretik eta 4,7 kilometroko bidea egin beharko dute Alkorta baserri atariraino iristeko. Egunean bertan eman daiteke izena, bi euro ordainduta. Iaz, Unai Etxeberria elgoibartarrak irabazi zuen proba, 21:32ko denbora eginda. Errekorrak Iñigo Lazkano mendararraren eskuetan jarraitzen d hala ere, 20:24ko markarekin. Lehenengo hiru sailkatuentzat izango dira sariak, baina ohi legez, Alkortara igotzen diren guztientzat hamaiketako egongo dela aurreratu dute antolatzaileek..



Mugertza kroseko irabazle historikoak ekitaldi batean batuko dituzte urtarrilaren 12an Herriko Antzokian

Mintxeta Atletismo Taldeak, Elgoibarko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, Juan Mugertza Krosaren 75. urteurrena dela eta, datozen hilabeteetarako antolatu dituzten ekitaldiak aurkeztu dituzte asteon. Antolatzaileen esanetan, Juan Mugertza Nazioarteko Krosak sasoi betean egin ditu 75 urteak; Espainiako kros egutegiko krosik antzina-koena izateaz gain, gaur egun, Euskadiko "hoberena" delako. Hori ospatzeko, IAAF izendapena izango du, lor dezakeen kategoriarik gorena. Historian zehar, Elgoibarren parte hartu duten atletek 456 domina lortu dituzte Olinpiar Jokoetan eta Munduko eta Europako Txapelketetan, 46 herrialderen ordezkari gisa. Elgoibarko Klub Deportiboak sortu zuen horri Egotoki Atletismo Elkarteak eman zion jarraipena, eta ondoren, Mintxeta Atletismo Taldeak. "75 urteotan, hiru antolatzailek eta milaka boluntariok lana, maitasuna eta adiskidetasuna eskaini dute, Elgoibarko herria, nazioartean, goreneko mailara eramateko", adierazi du Zigor Diezek. Hain egun garrantzitsua ospatzeko, Mintxetak batzorde bat sortu du. Batzorde honek lanean dihardu martxotik hona, eta hainbat eki-



taldi antolatu ditu, Elgoibarko hainbat elkartea eta bizilagunekin elkarlanean. Antolatutako ekitaldien artean, azpimarratzekoak dira 75. krosa egingo den asteburuan izango direnak. Hala, ostiral horretan, Elgoibarrek harrera egingo die atletismoaren historiako mito handiei, hain zuzen, Herriko Antzokian egingo duten Juan Mugertza 75 urte Gala ekitaldian. Antolatzaileek baieztatu dute Mariano Haro, Ana Isabel Alonso, Antonio Serrano, Coro Fuentes, Antonio Prieto, Alejandro Gomez, Martin Fiz, Carmen Valero, Juan Carlos de la Ossa, Mike McLeod, Jonh Ngugi bertan izango direla, eta lanean ari dira John Brown, Amelia Lorza, Julia Vaquero, Carlos Lopes edo

Fernanda Ribeiro ekarri ahal izateko. "Gala honen bitartez, eskerrak emango dizkiogu Elgoibarko herriari 75 urte hauek betetzen laguntzeagatik", esan du Zigor Diezek. Ekitaldian 75 urte hauei buruzko dokumental bat eskainiko dute, ETBekin elkarlanean egiten ari direna, eta horrez gain, Elgoibarko Musika Eskolako saxofoi taldeak girotuko du ekitaldia. Asteburu horretan bertan, larunbat goizean, umeentzako atletismo jaia antolatu dute herriko kaleetan Danobaten laguntzarekin. Urteurrenaren harira, Edu Arrillaga argazkilaria elgoibartarrak ere liburu bat kaleratuko du urtarrilean krosean ateratako argazkiekin.

Mikel Sarasola piraguistaren ikusentzunezkoa, Morkaikoren emanaldi zikloa amaitzeko



oraingoan. Nepaleko eta Groenlandiako ibai basatietan bizitako abenturak azaltzen dituen bi film dira. Azaroaren 30ean, eguena, eskainiko ditu Elgoibarko Herriko Antzokian (21:00).

Morkaiko mendi taldeak antolatu duen Udazkeneko Mendi Emanaldien azken saioan, 2014ko emanaldietan ere parte hartu zuen Mikel Sarasola piraguita izango da gonbidatua. *Abentura ur berrien bila: Nepal eta Groenlandia* ikusentzunezkoa eskainiko du

Elgoibarko eta Eibarko futbol jokalariek beterranoen arteko partida

C.D. Elgoibarren mendurrenena ospatzeko ekitaldiak ere ari dira bukaerara iristen. Zapatu honetan (azaroak 25) C.D. Elgoibarreko eta S.D. Eibarreko beterranoek elkarren aurkako partida jokatuko dute Mintxetan, 12:00etatik aurrera.

LANA.....
Eskaerak
 Adinekoak zaintzeko prest nago.
 ☎ 617 350 350

Adinekoak zaintzeko prest nago. Gida-baimena daukat. ☎ 674 687 863

Umeak zein adinekoak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago. Interna edo orduka. ☎ 634 209 087

Umeak zein adinekoak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago. Ordutegi malgua. Interna edo orduka. ☎ 688 627 687 (Katherine)

Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin eta adinekoak zaintzeko.
 ☎ 637 102 725 / 943 744 033

Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. ☎ 628 524 420

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxean zein ospitalean. Formazioa eta esperientzia ditut. ☎ 602 161 496

Baserriko lanak edo garbiketara egiteko eta sukalde laguntzaile moduan aritzeko prest nago. ☎ 617 846 775

Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Titulu eta esperientzia ditut.
 ☎ 688 639 371

Adinekoak edo umeak zaintzeko, garbiketara egiteko edo zerbitzari lanetarako prest nago. ☎ 649 425 356

Adinekoak zaintzeko prest nago.
 ☎ 699 535 728

Adinekoak zaintzeko, garbiketara egiteko edo zerbitzari lanetarako prest nago. ☎ 691 500 787

Adinekoak zaintzeko edo garbiketara lanak egiteko prest nago. Euskalduna naiz. ☎ 626 435 491

Nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketara egiteko prest nago.
 ☎ 632 061 103

Nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketara egiteko prest nago. Goizez.
 ☎ 652 668 877

Adinekoak zaintzeko prest nago, baserrietan ere bai. ☎ 674 687 863

Adinekoak zaintzeko edo zerbitzari lanetarako prest nago.
 ☎ 634 434 416

Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Erabateko malgutasuna.
 ☎ 631 714 707

Nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketara egiteko prest nago. Orduka.
 ☎ 629 872 270

Nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketara egiteko prest nago. Orduka edo interna. ☎ 688 738 823

Nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketara egiteko prest nago. Orduka edo interna. ☎ 688 718 853

Adinekoak edo umeak zaintzeko nire tuzke. ☎ 602 047 812

Adinekoak zaintzen edo garbiketara lanetan jardungo nuke. Baserriko lanak ere egiteko prest. Esperientzia daukat.
 ☎ 631 827 339

Eskaintzak
 Zerbitzaria behar da Mendaroko taberna batean asteburuetan lan egiteko.
 ☎ 678 396 522 (Maider)

DBHko eskola partikularrak emateko persona behar dut.
 ☎ 617 386 198

ETXEBIZITZAK.....
 Babes Ofizialeko etxebizitza salgai lñigez Karkizao kalean, Elgoibarren. Bosgarren solairu batean, igogailuarekin. Hiru logela eta bi komun ditu, eta hegalderra begira dago. Garaiea eta trasterlekua ere baditu.
 ☎ 620 025 161 / 699 547 832

Hiru logelatako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ 688 718 853

Logela bat hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.
 ☎ 669 173 635

Hiru gelatako etxea hartuko nuke alokairuan, astebeterako, abenduaren 29tik urtarrilaren 5era. ☎ 629 956 062

Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 677 259 560

Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 626 329 979

BESTELAKOAK.....
 Identifikazio txapa galdu dut. Alde bertean C.R. inzialak ditu, eta beste aldean nire datuak.
 ☎ 659 254 343

Hankan eraztuna duen txori txiki bat agertu da lbartxiki baserrian.
 ☎ 943 740 201

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



ROSA Ma PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure komunitatean obra batzuk egin dira, eta diru-laguntza jaso dugu horretarako. Obra hori egiteko dirua, baina, etxejabeok aurreratu genuen. Orain, diru-laguntza iritsi zaigunean, aurreratu genuen diru hori banatzea erabaki dugu. Tarte horretan, baina, dirua jarri zuen etxejabeetako batek etxebizitza saldu du, eta jakin nahiko nuke diru hori nori eman behar diogun: etxejabe horri ala etxejabe berriari.

Lehenengo eta behin, azalpen bat. Komunitateko kontuan sartzen dugun dirua, izan diru-laguntza bat edo izan geuk aurreratu dugun dirua, komunitatearena da, eta diru hori etxejabeen artean banatzeko jabeekideen batzarraren onspena beharko da ezinbestean. Beraz, obra hori egin ezean ere inork ez du bere kabuz dirua itzultzeko eskatzeko eskubiderik. Kasu horretan ere dirua komunitatearena izango da, eta jabeekideek eurek erabaki beharko dute diru hori banatu edo beste zerbaitean inbertitzea. Beraz, une horretan etxejabea denak ordaindu beharreko kuotak ordaintzeko betebeharra dauka, baina onurak ere berak jasoko ditu. Etxea erosten den uanean bertan egiten ditu bere etxejabe berriak eskubideak eta betebeharrak.


AHOLKUA: Izatekoan ere, dirua aurreratu zuen etxejabe horrek etxejabe berriaren kontra egin dezake eta aurreratu zuen dirua itzultzeko eskatu, baina komunitatea ez da ezeren erantzule izango kasu horretan. Komunitateak etxejabe berriari eman beharko diolako dirua.



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.




Zorionak, **Danel**, azaroaren 21ean 7 urte egin zenituelako.



Zorionak, **Elene**, atzo 7 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiakoen, eta bereziki, Jakes, Markel eta Jonen partez.



Zorionak, **Beñat**, 2 urte eder bete dituzulako. Muxu handi bat etxekoen, eta bereziki, Itxaso, Oihane eta Saioren partez.



Zorionak etxeko katixoari 6 urte egin dituelako. Zorionak, **Nuria**. Aitatxoren eta lagunen partez. Ondo pasa, printzesa.



Zorionak, **Jare**, domekan 6 urte beteko dituzulako. Muxu bat familiako denon partez.



Zorionak, **Leire**, gaur 6 urte egin dituzulako. Maiarlenen eta Nuriaren partez.



Zorionak, **Leire**, familiakoen eta bereziki, Nuriaren eta aitaitta-amamaren partez.



Zorionak, **Sara**, astelehenean 5 urte egingo dituzulako. Paixo handi bat familiakoen eta lagunen partez.



Zorionak, **bikote**, urrezko ezteietan. Jarraitu beti bezain jator, eta zorte on!



Zorionak, **Unax**, asteazkenean 5 urte bete zenituelako. Oso ondo pasa genuen. Muxu potolo bat familiakoen eta bereziki, Malenen partez.



Zorionak, **Enai!** Zapatuan 2 urte! Ondo pasa eguna. Muxu potolo pila bat etxeko guztien partez.



Zorionak, aitaitta **Mauro!** Jarraitu orain arte bezain alai eta irribarretsu. Muxu handi bat etxekoen, eta bereziki, Paul eta Lararen partez.



Elgoibarren, 2017ko azaroaren 18a

Eskerrik asko, gaziak! Egun ahaztezina benetan! Giro hobea izatea ezinezkoa! Eskerrik asko Azkue, Arkupe eta Sigmari.

PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
 cordonvilarchao@telefonica.net
 San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 98 61 62

Jon Aranoa
 Guillermo Torres
Elgoibar Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
 Asteleheneratik ostirakera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
 Larunbatak: 11:00 - 13:00

Inoiz indegi zerbitzua daukagu.
 Dutsu ordua hartzeko.

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
 optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
 Tel.: 943 740 359 www.uzuroptika.com

DAILIES TOTAL 1

Hain dira erosoak,
 ezer ez daramazula
 irudiko zaizula.

Probatu itzazu doan!

Alcon A Novartis Division
 8170462804, CPSP16180CAT

24 BARIXAKUA

18:00 Pintxo dastaketa, merkatu plazan, Josu Mugertza Belaustegiko sukaldariarekin. Barren Azoka elkarteak antolatuta, doan.

19:00 Musika Eskolako txarangaren kalejira, Kalegoen plazatik Maalaraino.

Segidan, Musika Eskolako koroaren kontzertua, Maalako parkean.

19:30 Bakegileen aurkezpena. Abenduaren 9an presoan alde Parisen egingo den martxaren aurkezpena, Mendaron. Gaztetxean. Segidan, mokadutxoan egongo da.

20:00 Sebas Etxaniz preso elgoibartarra aske uzteko eskatzeko elkarretaratzea. Sarek antolatuta, Kalegoen plazan. Udalak ere bat egingo du deialdiarekin.

21:00 Pintxo-jolas dastaketa. Pintxo jana eta karta eta mahai jokoen saio dinamizatua. Elgoibarko Gaztetxean.

25 ZAPATUA

Hileko azken zapatuko feria

9:00 Kalebarren plazan jarriko dituzte Elgoibarko baserrietako produktuak.

11:00 Mekako Gizarteratzeko Ikasleek jarriko dute txosna, Aspanogiren alde dirua biltzeko.

11:30 Aspanogi elkartearen aldeko jolasak eta otarraren zozketa. Kalebarren plazan.

12:00 Kale Kantariak, Kalebarren plazatik.

12:00 Talo tailerra, haur eta gaztetxoentzat.

Eguerditik aurrera, ganadu erakusketa Aita Agirre plazan.

10:00 Bigarren eskuko produktuen merkatua, Aita Agirre plazan.

10:00 Emakumeentzako autodefentsa tailerra, Olaizaga kiroldegian.

10:30 Alkortako lgoera, Mendaron.

12:00 Kontzentrazioa, emakumeenganako indarkeria salatzen. Kalegoen plazan.

12:00 C.D. Elgoibarreko eta Eibarko beteranoen arteko partida. Mintxetan. C.D. Elgoibarren mendeurrenaren barruan.

12:30 *Woman in black* ekimena, emakumeenganako indarkeria salatzen. Narrutsik talde feministak antolatuta, Kalegoen plazan.

19:00 Oinetako pareak pilotzeko ekimena, emakumeenganako indarkeriaren kontra. Narrutsik talde feministak antolatuta, Maalako parkean.

26 DOMEKA

9:45 Udal Musika Bandaren kalejira.

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua, Herriko Antzokian.

1. *La lira de Pozuelo* (L. Serrano)

2. *Quinta sinfonía & Mambo nº5* (R. Vizcaíno).

3. *Obertura cubana* (G. Geshwin).

27 ASTELEHENA

18:30 Jabekuntza tailerra. *Mikromatxis-moa: eguneroko beste indarkeria motak*. Loredi Salegik dinamizatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Gaztelaniaz.

28 ASTEARTEA

18:00 Literatura tailerra: Luis Landeroren *Juegos de la edad tardía* liburua landuko dute Consuelo Carrererekin. Haizeak antolatuta, Udal Liburutegian.

19:00 *Baguaz! Bidaia esperientziak*. Nora Hadik azalduko du Tanzaniara eginitako bidaia. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

29 ASTEAZKENA

17:00 Ipuin kontalaria: *Berdin eta desberdin, mila ipuin*. Anduriña Zurutuzak kontatuko du, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira. Udal Liburutegian.

30 EGUENA

21:00 Mendi emanaldia. *Abentura urberien bila: Nepal eta Groenlandia*. Mikel Sarasolak eskainiko du, Morkaikoren Udazkeneko mendi emanaldien barruan.

MAQUINA ESPECIAL



* Torna CNC eta Lebedun makinen berritzea
* Automaaten Programazioak
* Eskema elektronikoa
* Armario Elektrikoen mantentzeak
* Muntaiak mekanikoa
* Subkontratazioa

668 83 34 75 / 660 37 08 54
me.maquina.especial@gmail.com



Jarri ezazu zure publizitatea BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean

943 744 112

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

Zinea (Herriko Antzokian)



'La montaña entre nosotros'

24 barixakua, 21:30
 25 zapatua, 19:00 / 22:15 (VOS)
 26 domeka, 19:00
 27 astelehena, 21:30



'Tadeo'

26, domeka, 16:30

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

**G
U
A
R
D
I
A
K**

09:00 - 22:00

24 Barixakua BARRENETXEA
 25 Zapatua IBAÑEZ
 Goizez, YUDEGO
 26 Domeka IBAÑEZ
 27 Astelehena GARITAONANDIA
 28 Martitzena ETXEBERRIA
 29 Eguaztena FERNANDEZ
 30 Eguena YUDEGO
 1 Barixakua ORUESAGASTI

GUARDIAK 20:00 - 22:00

Guardia Elgoibartik kanpora de-
 nean, asteburuetan izan ezik:
 BARRENETXEA (Elgoibar)
 Errosario, 26 - 943 741 277

22:00 - 09:00

MANDIOLA (Eibar)
 San Agustin, 3 - 943 820 533

* Fernandez: Herriko enparantza 4,
 Garagartza (Mendaro)
 Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)
 Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9
 (Soraluze) Tel.: 943 751 384



Eugenio Gonzalez Larrea

2017ko urriaren 27an hil zen, 79 urte zituela.
 Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
 bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

XIV. URTEURRENA

Lorea Etxabe Azkue

2003ko azaroaren 26an hil zen, 30 urte zituela.

*Edur zurittan hazittako
 lore gorrixa ziñan.
 Urtu eraitten zendun
 inguruko hotza,
 eta bedarra hazi erain.*

*Ez dogu gehixago
 zure berua igarriko,
 baiña hementxe gerauko da
 zure arnasia aztarnia,
 botatako sustraixen gaiñian.*

Zure familia eta lagunak





Julen Ansola



Julen Ansola

Irati Agirreazaldegi



Julenek ateratako argazkia ezezik Marcel Remy agertzen dena inguratu dut nire begien ondora. 94 urteko eskalatazaila suitzarra, adin horrekin, 450 metroko hormatik igo da. Ni, adinez gazteagoa izan arren, ez nintzateke abiatuko modu horretan inora. Hitzez joan ahal izango naiz gaurkoan aldapan gora?

Hitzak, ordea, testuan beherantz korrika, Iban Murua irudian Karakaterako malkarrean gora doan heinean antxintxika. Podiumeko gorengo koska aurten ere errepika, nola eta soken bideari segika. Gainera, errekorreko denbora gero eta beherago, gutxika-gutxika.

Soken bidean pausoka-pausoka, baina bidean lagun izaten dituzten herritarren animoek ez al dute osatzen partaideei aldapan gora tira egiten dien soka? Aldapan gorago edo beherago egoten dira elgoibartarrak oihuka eta txalo joka. Zaila da irabaztea

borroka, baina urtetik urtera gaindituz doaz antolatzaileak gailurraren inguruan gero eta jende gehiago pilatzearen erronka. Parte hartzaile batzuk azken maldan hegan joaten diren irudipena dutela diote lagun eta herritarren animoek bultzatu eta igota.

Tontorrean hanken gogortasuna gailurrera iristearen emozioak bigundu. Nekeak eta pozak bat egiten duten irribarrea zeinek aurpegitik hurrundu. Batzuek, gehienek, erreparatzen diete ordulariei: zenbat minutu eta segundu. Baina horrek zertan inori eguna ilundu. Karakaten, egun horretan askorentzat bakarra den munduan, korrikalari eta ikusle, elkartzen baita makina bat mundu.

Baina bakoitza bere mundu txikian bizi denean norbere buruari jarritako erronka gainditzeari nola egin ihes. Karakatera lasterka joan diren neska-mutilek eta Marcel Remyk ez zuten izango errez, baina lortu badute zergatik ez gainditu gainerakoak eguneroko koskak saiaturaz gero adorez. Esaerak hala dioenez: gogoko tokian, aldaparik ez.

“Norbere buruari jarritako erronka gainditzeari nola egin ihes”

Gremioen gida

Aroztegiak
Elektrizitatea
Igeltseritza
Iturgintza
Leihoak
Pintura

ITURGINTZA



ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com



Hemiko Enparantza, 10 behea
MENDARO
943 75 60 44 / 628 529 692
Faxa: 943 75 60 37
pagoerrotaiturgintza.com
www.pagoerrotaiturgintza.com



Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com



San Roke 10-A, behea B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net



Azpilgoeta 7 behea - Mendaro
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzatellabide@hotmail.com



BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Uruzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585
senda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
faller@pagoagasa.com

ELGOIBAR

AROSZTEGIAK



Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eu
info@biena.eu



Olaso industriagunea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimare@hotmail.com



aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutx-gain Industriagunea, 9
20850 Mendaro
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com



Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com



Albitxuri industriagunea, 1-0/ 1-P
943 740 547



ELEKTRIZITATEA



elektrizitatea

Kilimon hiribidea, 1 - Mendaro
943 530 356

iparelek@gmail.com
iparelek@iparelek.com



Uparitzaga 10, 6.B
Elgoibar
karranzaj@gmail.com

Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999



Raimon: 677 512 462
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Pedro Migel Uruzuno, 14 behea
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

LEIHOAK



SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

IGELTSERITZA



Urasandi, 22 behea - Elgoibar

Tel.: 605 705 204

Gremioen arteko
koordinazioa.
Pladurraekin ere
lan egiten dugu.



Era guztietako
igeltseritza lanak
egiten ditua

angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkoa
Elgoibar

610 226 651

PINTURA



Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

Gremioen gida

Gremioen gida